

EKITALDI POLITIKOAK

ENPRESARIEKIN BILERA



TOKIA: CEDEMI (Ezkerraldeko Enpresak Garatzeko Zentroa) Barakaldo. **HIZLARIAK:** Juan Jose Ibarretxe eta Tontxu Campos
GERTAKARIAK: Ezkerraldeko enpresariekin bildu ziren, egungo egoera eta etorkizunera begira dituzten erronken berri azaltzeko.



ESANAK

JUAN JOSE IBARRETXE
(Lehendakaria)

«Redondori Espainiako eskumarekin zein proiektu aurrerakoiki garatuko duen esateko eskatuko nioke»

«Arazoak konpontzea baino, EAJ eta EA erakundeetatik kanpo ikustea da PPren eta PSOeren asmoa»

«Euskal herritarrok jai daukagu gaur egun ditugun arazoaren konponbidea kanpotik badator»

«Garapen ekonomikoa da abertzaletasun ekonomikoaren ekarpenik garrantzitsuen»

Larreina: «Barne ministroa eta lehendakariaren artean aukeratu behar da»

Erredakzioa | BILBO

EAEko herritarrek lehendakariaren eta Barne ministroaren «arte» aukeratu beharko dutela adierazi zuen Rafael Larreina Arabako EAJ-EA koalizioiko bigarren zerrendaburuak Gasteizen atzo egindako ekitaldian.

EAJ-EA koalizioak hauteskunde kanpainarako zabaldu duen bulegoaren inagurazioan egon zen Larreina, ABBko buru Jose Mari Gerenabarrena eta EAko Arabako buru Manuel Ibarrondorekin batera.

Juan Jose Ibarretxek azken bi urte hauetan egin duen lana nabarmendu zuen. «Ekonomia, osasun, heziketa, eta gizarte gaitan arrakasta handiz jardun du», adierazi zuen.

Horren aurrean, Jaime Mayor Orejak Barne Ministerioan egindakoaren berri eman zuen. «Atzeritarren Legearen ministroa da. Besteak beste, ehunka etorkinen esplotazioa ahalbidetu duen ministroa», nabarmendu zuen EAJ-EA koalizioiko Arabako bigarren zerrendaburuak.



INIGO AZKONA

Josu Bergara Bizkaiko ahal-dun nagusia eta Juan Jose Ibarretxe EAEko lehendakariagaia, Barakaldon, atzo egin zuten agerraldian.

Ibarretxe: «Arazoen konponbideak kanpotik etorri behar badu jai dugu»

Redondok euskal sozialismoa nora eraman behar duen galdetu du EAJ-EAko hautagaiak

Haritz Gallastegi | BILBO

Juan Jose Ibarretxe EAJ-EAko lehendakariagaia PSE-EEK garatu nahi duen estrategia kritikatu zuen Barakaldon kanpainako aurreneko egunean. «Nora eraman nahi du Redondo Terrorosek euskal sozialismoa PPren eskutik? Nire buruari behin eta berriz egiten diot galdera bera», adierazi zuen Ibarretxek Ezkerraldeko enpresariekin egindako topaketan.

Azken lau urteotan Ezkerraldeak izan duen garapenaren inguruan hitzegin zuen EAJko lehendakariagaia. Ildo horretan, Ezkerraldea horrenbeste urtean «ahaztua» izan duen Espainiako eskumarekin zein proiektu aurrerakoiki garatzeko asmoa duen esateko eskatu zion PSE-EEko lehendakariagaia.

Josu Bergara Bizkaiko ahal-dun nagusiarekin eta Tontxu Campos Ekonomi Sustapeneko diputatuarekin batera egin zuen

agerraldian, PPK eta PSE-EEK hautagai «bera» dutela nabarmendu zuen, eta euren helburua EAEk dituen arazoei konponbidea aurkitzea baino EAJ eta EA erakundeetatik botatzea dela gaineratu zuen Ibarretxek. «Bitxia da benetan PPK eta PSE-EEK hautagai bera partekatzea, Jaime Mayor Oreja,

hain zuzen. Euren benetako asmoa EAJ eta EA erakundeetatik kanpo ikustea da, eta baita Ibarretxe ere», esan zuen.

Konponbidea, etxean

Ibarretxek argi du «Euskadi Euskaditik eraiki» behar dela. «Euskal herritarrok jai daukagu gaur egun ditugun arazoaren kon-

ponbidea kanpotik etorriko dela pentsatzen badugu». Era berean, EAEn ideologia ezberdinetako herritarrak bizi arren eurekin «elkar ondo hartzea» ezinbestekoa dela adierazi zuen Ibarretxek. «Maiatzaren 14an ez da mundua geldituko. Orduan ere, elkarrekin bizi, proiektuak garatu eta konpondu beharko dugu».

EAE azken hogeita urteotan izan duen garapen ekonomikoagatik baino gatazka politikoa-gatik soilik ezagutzea «tamalgaria» dela esan zuen. «Abertzaletasun demokratikoaren ekarpenik garrantzitsuen» garapen ekonomikoa izan da. EAE herri serio, moderno, eta lehiakorra bihurtu da», azaldu zuen Ibarretxek. Era berean, etorkizuneari ere bide bera jarraitu behar dela esan zuen, baina «oreka» galdu gabe, «hazten jarraitu behar dugu, baina elkartasuna galdu gabe», azaldu zuen Ibarretxek.

ETORKIZUNA

Birmoldaketa teknologikoa

Errentari dagokionez Europaren mailan jartzea lortu ostean lan munduan emaitza berdina lortzeko ahaleginak egingo dituztela azpimarratu zuen Ibarretxek. «Sarri askotan ideologiak alde batera utzita denok lan egin dugu EAEko proiektuak aurrera ateratzearren. Elkarlanari esker, eta batez ere, erakundeok egin dugun lanari esker Ezkerraldea eta Paisaia biziberritzea lortu dugu. Eskualde horiek ez dira historiaren zati, etorkizuna baiziki». Etorkizunera begira, EAJ-EA koalizioak arlo ekonomikoan duen erronka nagusia birmoldaketa teknologikoa da, «aro modernora egokitu behar dugu eta».